



3 UDALBATZARRA

Eztabaida handiko gaiak bilkuran

Lasarte-Oriako Udalbatzarrak legealdiko azken aurreko bilkura egin zuen asteartean. Zortzi gai jarri ziren mahai gainean eta gehienek eztabaida sortu zuten. Batez ere, EAJk aurkeztutako "Beterrri" garapen agentziari buruzko mozioak. Biyak Bat elkarteak kiudeatzen duen Zahar egoitzaren egoera, Udal Erreglamendu Orokorra edo lanpostu berrien hizkuntza-eskakizunak ere aztertu ziren.

5 KULTURA

Haur eta Helduen Literatura Lehiaketak martxan

Lasarte-Oriako Udaleko Kultura sailak 29. Literatur Lehiaketa eta Gazte eta Haurren 28. Literatura lehiaketen baldintzak argitara eman ditu. Helduek mikrokontakizunak edo poesiak aurkeztu beharko dituzte; haur eta gazteek, aldiz, ipuin eta poesiak. Helduen mailan Lasarte-Oria saria ere izango da. Euskarazkoak zein gaztelarazko lanak izan ahalko dira. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 22an amaitzen da.



Ttakun Kultur elkarteak aurten ere Udako Txoko eta Kanpaldiak antolatu ditu Udalaren laguntzaz. Lagun artean eta euskaraz milaka ekintza burutu eta esperientzia berriak biziko dituzte udaleku ireki zein itxietan izena ematen duten haurrek.

Asteazken arratsaldean, Pili Bermejo, Iñaki Aristondo, Haizea Sarasola eta Enara Ieregi Ttakuneko hezitzaileak, Tomas Arrizabala Ttakuneko lehendakariak eta Boris Nogales Udaleko Euskara saileko buruak 2015 urteko Udako Txoko eta Kanpaldietako eskaintza aurkeztu zuten.

Ttakunek 3 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako eskaintza du uda honetarako eta hauek euskaraz ongi pasa dezaten da erronka.

Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz, aurrera eramaten diren programak dira Udako Txoko eta Kanpaldiak. Boris Nogales zinegotziak azaldu zuenez, "Euskara erabilera handitzeko lanean gabiltza Udalean eta Ttakunekin dugun hitzarmenean ere, Udako Txoko eta Kanpaldiak euskaraz izan daitezen bultzatzen dugu. Haurrek aisia euskaraz disfruta dezaten".

Agerraldian Pili Bermejok azaldu zuenez, guztira iaz 700 haur eta gazte eta 80 bat hezitzaile eta laguntzaile izan ziren Txokoetan.

Eskaintza

Azken urteetan Udako Txokoetan, haurren proposa-



Ttakun elkarteko kideak, Udal ordezkariak eta herriko gaztetxoak Udako Txoko eta Kanpaldietako aurkezpenean.

menak kontuan izan dira programa egiterakoan eta herriari ere garrantzia eman nahi izan diote.

"Herriko auzo ezberdinetan antolatu ditugu ekintzak, haurrei baliabideak ezagutzera eman dizkiegu eta herriko elkarteekin eta Udalarekin lan egin dugu. Horretan jarraitu nahi dugu," azaldu zuten.

Adinaren arabera, jolasak, tailerrak, irteerak, kirola, jaialdiak eta beste hainbat ekintza egingo dituzte Udako Txokoetan parte hartuko duten haur eta gaztetxoek.

LH2 eta LH3koek gainera egonalditxo bat egiteko aukera dute Astigarragara eta LH3-LH6ko gazteek Udaleku itxietan aritzeaz gain, aukera

dute txokoetan ere parte hartzeko.

Udalekuei dagokionez, LH5 eta LH6koak Donemiliagara doaz uztailaren 3tik 14ra eta LH3 eta LH4koak uztailaren 16tik 25era bitartean Mendigorriara.

DBHko gaztetxoek, kanpaldi ibiltaria burutuko dute Nafarroa Iparraldean eta Bizkaiako kosta ezagutuko dute DBH3 eta DBH4koek.

Izena ematea

Kanpaldietan izena emateko epea hilabete hasieran zabaldu zen, Udako Txokoetakoa aldiz, astelehen honetan.

Inskripzioa Ttakuneko bulegoan egin daiteke maiatzaren 8ra arte.

Informazio gehiago aisia@ttakun.com edo 943 37 14 48 telefono zenbakian eskainiko da.

Begiraleen garrantzia

Honetaz gain, hezitzaileak formatuak izatearen garrantzia ere azpimarratu zuten agerraldian.

"Formazio egunak egiten ditugu. Hauek hezitzaileak elkar ezagutu eta haien artean konfiantza sortzeko ere erabiltzen dira," azaldu dute.

Era berean, begirale lanak egiteko izena ematea gaur amaitzen dela gogoratu zuten, horregatik "18 urte baino gehiago duten herriko gazteak gonbidatzen ditugu izena ematera".



Etorri gure eskaintzak ezagutzera eta baliatu gure tratu profesional eta pertsonalizatuaz

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
 - TB/HI-FI
 - Instalazio elektrikoak



www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361080 • Tel./ Faxes: 943 372521

Neure kabuz



Maider Segurola
Buelta ta buelta

Kasualitatez heldu da nire Keskuetara argazki-liburu hau eta argazki-liburu ia guztiak bezala, etxeko egongelan jarri eta bisitariak denborapasa eskuetan hartu eta begirada bat emateko modukoa da hau ere. Biribilguneen argazkiak biltzen dira bertan. Rotondak. Baina lan estetiko hutsa izan beharrean, Euskal Herriko biribilguneen erabileraren inguruko gogoeta eragitea da egileen helburua. Gure errepideetako gune hauek, bidegurutzeak modu seguruan hartzeko egiturak izateaz gain, fantasia urbanoaren isla ere bihurtu direlako.

Biribilguneen kontzeptua sortu zen herrialdean, Frantzia, 25.000tik gora izango direla kalkulatu da eta hauen guztien artean, erdian artelan bat duten 3.328 rotonda zenbatu dituzte. Estatu Batuetan "Roundabout Art Route" delakoa sortu dute Oregon estatuko Bend herrian eta han diren 20 biribilguneak artelanak erakusteko plataforma bihurtu dituzte.

Gure herrian dozena bat inguru zenbatu ditut: biribilak ez diren biribilguneak, erdian lorategia dutenak, olibondoa edo harri erraldoiak, txakurrak paseatzeko balio ez duten berdegune txukunekoak, farola baten inguruan bueltaka dabilzanak, biribilgune ez izan arren garai batean hala izan zirelako jendeak oraindik horrela erabiltzen dituenak... Eta tartean baita erdian artelana duen bat ere. Herriko sarreran dago Ricardo Ugarte eskulturgilearen burdinezko zortzi metroko "Tajamar" dorrea.

Hori al da ordea, halako lan batentzat tokirik egokiena? Ingu-ruan dabilzanek begirada errepidera zuzenduta behar duten tokian, zer zentzu izan dezake halako apaingarriak? Artelanari ez ezik, buruari ere buelta batzuk emateko gaia, zalantzarik gabe.

Zorion agurrak



Lur

Zorionak prexioxi!! Ondo-ondo pasa zure 11. urtebetetzean Muxu potoloak!!!



Daniel

Zorionak! 10 milioi muxu, zure 10. urtebetetzean. Aita, Marijo eta Aitanaren partetik.



Sophie

Zorionak etxeko printzesari zure lehenengo urtebetetzean, milaka muxu Pedro, gurasoak eta familiaren partez!!!!!!



Olatz

Zorionak politta! Earki pasako degu zure 8 urteak ospatzen.



Ainara

Zorionak sorgiña, oso ondo pasa zure 11 garren urtebetetzean, muxu erraldoi bat etxekoen partez!



Aintzane

Zorionak zure hamaikagarren urtebetetzean eta muxu handi bat etxekoen partetik.



Nahia

Zorionak bihotza zure 3. urtebetetzean! Izugarri maite zaitugu! Mila muxu! Aitatxo eta Amatxo.



Uxue

Zorionak bitxito! Bost muxu haundi familiaren partetik.



Maialen eta Markel

Zorionak pareja familia osoaren partetik. Maite zaituztegu!



Unax eta Ander

Ondo pasa zuen egunean, txokolatzeko muxu handi bat familiaren partez.

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Gela alokatzen da Lasarte-Orian. 674 69 44 97,
- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailua etxe osoan. 649 52 67 66.

Lan-eskaintza

- Goiegi jatetxean astean ordu batzuk lan egingo lukeen, pertsona bila dabil. Zerbitzari laguntzailea: Euskalduna eta bezeroari arretaz zerbitzua emateko gogoia duena. Esperientzia ez da derrigorrezkoa. Garbiketa garbiketako zenbait lan ere egin beharko ditu.

Lan-eskaria

- Etxerako langile bat eskaintzen da. Interno edo externo lan egiteko. 676 18 84 11.
- Etxeak garbitu, zaharrak edo haurrak zainduko nituzke goizetan, igande edo jai egunetan. 943 40 40 15 edo 606 66 10 48 Doris.

- Klase partikularrak ematen dira batxillergoko letretako irakasgai guztiak, latina barne. 600 76 60 68.
- Interna edo externa bezala lana bilatzen dut adinekoen zaintzan. Esperientzia eta paperak egunean ditut. 645 78 72 72.
- Neska eskaintzen da externa edo orduka lan egiteko pertsona helduen zein ume edo gaixoen zaintzan. Paperak, erreferentziak eta berehala hasteko prest 627 10 90 78 Maria.
- Emakumea eskaintzen da interna edo externa moduan lan egiteko. Esperientziaduna helduen eta umeen zaintzan. 637 19 07 26.
- Neska arduratsua externa edo interna moduan lan egiteko prest ume zein helduen zaintzan. 632 14 28 11.
- Arratsalde edo asteburuetan haur zein helduen zaintzan edota garbiketa lanetan lan bila. 627 26 97 19 Iris.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Yaira Gomez Gonzalez apirilaren 7an.



Heriotzak

- Jose Azpiroz Zubillaga, apirilaren 10an, 82 urte zituela.
- Victorio Jañez Abella, apirilaren 9an, 59 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 17	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Larunbata, 18	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Igandea, 19	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Astelehena, 20	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Asteartea, 21	Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Asteazkena, 22	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Osteguna, 23	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elosegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Muntteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintzarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintzarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Nerea Eizagirre, Jon Altuna E.
txintzarri@txintzarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

UDALBATZARRA

Azkenaurreko plenoa, beroa

Eztabaida sortu zen gai-zerrendako puntu gehienekin



Zinegotziak udaleko pleno aretoan, astearteko udalbatzarreko bozkaketa batean.

Legegintzaldiko azkenaurreko plenoa izan zen astearte arratsaldekoa. Maiatzeko udal hauteskundearen aurretik, beste bat geratzen da soilik. Zortzi puntu izan zituen apirilko gai-zerrendak, eta gehienek eztabaida piztu zuten. Beterriko eskualdeko garapen agentziari buruz EAJK aurkeztutako mozioak bereziki. Dena den, Zaharren egoitzaren egoera, Udalaren Erreglamendu Orokorra eta lanpostu berrien hizkuntza-eskakizuna ere landu zituzten.

TXINTXARRI

Pleno luzea, beroa eta eztabaidatua izan zen astearte arratsaldekoa. Zortzi puntu izan zituen eguneko gai-zerrendak.

EAJK aurkeztutako Beterri garapen agentziari buruzko mozioak piztu zuen eztabaida gehien alderdien artean.

“Eskualdeko EH Bilduko ordezkariak jakitera eman duten proposamenak ez du legezko baliorik, aurkeztutako erakundea ez baita oraindik eratu eta Udala agentziaren kide bezala sartu dute, logo ofiziala erantsiz”, salatu zuen EAJK, “gezur bat eraiki duzue”, leporatu zion Bilduri.

Irudia kentzeko eskatu, Udalaren irudia “interes alderdikoekin” ez erabiltzeko exigitu eta inongo osoko bilkuran Beterri garapen agentziaren parte izatea ez dela onartu aitortzeko galdegin zion Estixu Alkorta Bilduri.

PSEko Jesus Zaballosek bat egin zuen jeltzaleen eskariarekin: “Nekatuta gaude. Bildu langabezia dauzen pertsonen jolasten ari da. Plenoetan erabaki behar da garapen agentziaren parte izan nahi dugun ala ez. Ez dugu opakotasunez beterriko halako txirringitorik nahi. Hernani, Usurbil eta Astigarragaren babesa du soilik, ez Lasarte-Oria, Andoain eta Urrietarena”.

Bilduko Gorka Lizarragak erantzun zion Beterri garapen agentzia sortzean garbi utzi zutela sortzen zutena irudi bat

zela, ez zutela egitura juridiko bat sortzen, marka bat bakarrik. “Lanean ari gara eskualde mailan langabeziaren aurka borrokan, oposizioak uzten digun heinean behintzat. Kooperatzen, Inoforo diru laguntzak, Biziberritzen proiektua... Gure lehentasuna da langabeziari aurre egitea”.

Eztabaidaren ostean bozketari ekin eta PSE, PP eta EAJren aldeko bozkekin onartu egin zen mozioa. Bilduk kontra bozkatu zuen eta LOHP abstenitu egin zen.

Gainontzeko puntuak

Gai-zerrendako beste puntuak ere eman zuten eztabaidarako tartea. Esaterako, lanpostu zerrendan agertzen diren 20 lanposturi hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data aldatzeko proposamena onartua izan zen. PSEk eta PPK bozkatu zuten kontra.

“Euskara interes alderdikoekin erabiltzen du udal gobernuak, zuek eskatzen duzuen ez dator bat herriaren errealitate linguistikoarekin eta jende askok ezingo du oposizioetara aurkeztu”, salatu zuen Zaballosek.

Pablo Barrio alkateak erantzun zion herritarrek eurek nahi duten hizkuntzan hitz egin ahal izateko “eskubidea” dutela eta udaleko langileek hori “bermatu” beharra daukatela.

Lasarte-Oriako Udaleko funtzionamendua arautuko duen Erreglamendu Organikoaren onarpenari dagokio-

nez berriz, bere horretan geratu zen ez zuelako gehien-go absolutuaren babesa lortu. PSEk eta EAJk erretiratu egin zituzten jarritako emendakinak. “Landuta dago, baina ez behar bezala landuta. Lan asko egin dugu eta gehiago egin behar bada ere, prest gaude”, adierazi zuen Alkorta. “Asko dago eztabaidatzeko oraindik”, esan zuen Zaballosek.

Pablo Barrio alkateak bere aldetik, Erreglamenduak dituen 125 puntuetatik desadostasuna hirutan soilik egon dela adierazi zuen eta hori “azpimarratzekoa” iruditu zitzaion, “lanean jarraituko dugu”.

Eguneko seigarren puntuan, PSEk mozioa aurkeztu zuen Biyak Bat Zaharren egoitzako egoera “txarra” salatuz. Hezetasunak, leihoen egoera “tamalgarria” eta Udal Gobernuaren “utzikeria” salatu zituen Zaballosek.

Gainontzeko alderdiek mozioa “konpartitu” bai, baina hori 2015eko aurrekontuen baitan negoziatu beharreko puntutzat jo zuten eta gainera, “larrialdi irteera” bat egitea presazkoagotzat ikusten dute.

Aldeko bozkak beraz, PP eta PSEren zazpiak izan ziren, kontrarik ez eta hamar abstentzio.

Bestalde, Jularitzak bultzatu duen Udal Lege egitasmoaren aurrean Bilduk prozeduran “epe luzapen bat” eskatuz aurkeztutako mozioa atzera bota zuten.

Azkenik, aho batez onartu zen herriko Manttangorri autobus zerbitzua Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan inkorporatzeko eskubidea.

Galderen txandan 2015eko aurrekontuak, Beterri, udal aldizkaria eta Garaikoetxea izan zituzten eztabaidagai.

SARE

“Pankarta ibiltaria” ekintza igandean

Lasarte-Oriako Sarek “pankarta ibiltaria” izeneko ekintza antolatu du. Hitzordua igandean izango da, 12:30ean, Okendo plazan.

Ekintza honen bitartez, Lasarte-Oriako Sarek bat egin nahi du Sare orokorrak asteburuan “Sarea zabaltzen, dispertsioarekin amaitzera goaz!” lelopean ehunka herri eta auzotan egiteko asmoa duen beste hainbat ekintzarekin.

Lasarte-Oriako kasuan, euskal presoek oro har pairatzen duten dispertsioaren amaiera ez ezik, preso gaixo larrien berehalako askatasuna ere eskatuko da, eta bereziki herritarra den Ibon Fernandez Iradirena.

Sare orain dela urtebete sortu zen, eta, hain justu, asteburuko ekintzek helburu jakin bat dute: euskal preso, iheslari eta deportatuen giza eskubideen alde sortu zen sarea ehuntzen jarraitzea.

UDAL HAUTESKUNDEAK

Posta bidezko botoa

Maiatzaren 24ean bozkatzera joan ezingo duten herritarrentzat posta bidezko ohiko botoa egiteko aukera martxoaren 31tik maiatzaren 14ra izango da, baita ezindu edo gaixoen eskaera egitekoa ere.

Alderdiek haien aholkularitza eta laguntza eskaini nahi dizkiete herritarrei.

Lasarte Oriako EAJ taldeak bi telefono jarri ditu eskura 652 70 68 20 y 635 20 53 93.

Lasarte-Oriak Ahal du hautesle-taldeak berriz, Gizarte-etxea taberna ondoko bulegoa irekia izango du honetarako goizez 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.



UDAL HAUTESKUNDEAK

Kanpaina prestatzen

Lasarte-Oriako EHBildu alderdiak hauteskunde kanpainaren prestatetari ekingo zion astelehenean.

Lanketa fase honetan ere herritarren parte hartzea ezinbestekoa dela uste du taldeak eta horregatik, Manuel Lekuona kultur etxean bilera irekia egin zuten.

Maiatzaren 24ko hauteskundetan herritarren bozka lortzeko proposamenak egin eta eztabaidatu zituzten, besteak beste, hautesle potentzialeri nola iritsi edo programa modu erakargarrian nola aurkeztu.

SAN PEDRO JAIK

Gaztetxoen danborradako izena emate epea ireki da

Lasarte-Oriako Udalak ATLO, Lasarte-Oriako Danborrada elkar-tearen esku utzi du Haur danborradaren kudeaketa eta antolaketa eta hori dela eta, aldaketa bat egin du elkarteak, Haur danborrada izatek Gaztetxoen danborrada izatera pasa da.

ATLOko lagunek azaldu dutenez, aldaketa hau 12 urte dituzten gaztetxoek danborradaz gozatzen jarraitzeko egiten da. Izan ere, gaur egun adin hau baino zaharragoak diren gaztetxoek ezin baitute parte hartu eta helduak izan arte ez dute berriro danborra edo barrila jotzeko aukera hori.

Hori dela eta, Gaztetxoen danborradan parte hartzeko adin tartea zabaldu du elkarteak eta hemendik aurrera 5 eta 17 urte arteko haur eta gaztetxoek parte hartu ahalko dute honetan.

Era berean, Gaztetxoen danborradako izena ematea irekitzen dela jakin arazi nahi du elkarteak. Interesatuek www.tanborradalasarteoria.org orrialdean dagoen izena emate orria bete eta tanborradalasarteoria@gmail.com helbidera bidali edo apirilaren 20tik maiatzaren 8ra 18:00etatik 19:00etara Manuel Lekuona kultur etxeako kafetegian eman behar dituzte eskaerak. Izena emate epea maiatzaren 8an amaituko da.

Elkarbizitzan sakontzeko

DSS2016 eta Baketiken antzerki-forum egitasmoa gurean izan zen asteazkenean

Antzerki forum formatuan elkarbizitzaz hausnartzeko aukera izan zen asteazkenean Baketik eta DSS2016ren 'Eta Hik zer?' antzerki forumean. Udal Euskaltegiko erabilera antzeko aretoan egin zen saioa. Bertan aktoreek hainbat egoera antzestu zituzten eta ostean, horien gainean gogoeta egin ahal izan zuten bertaratutako herri-tarrek. Udalak sustatutako ekintza izan zen.

TXINTXARRI

Baketik eta DSS2016ren 'Eta Hik zer?' antzerki forumaz gozatu ahal izan zuten herritarrek asteazkenean. Guztira hamabost bat lagun elkartu ziren Anbulatorioko eraikinean dagoen erabilera antzeko gelan.

Egungo testuinguru sozial eta politikoan elkarbizitza eta adiskidetzat sustatzeko asmoarekin, ekimen honek elkarbizitzan sakontzeko elkargune bat izan nahi du. Hiru galdera ardatz hartuta, "Zer gertatu da eta zergatik? Zer egin dezakegu orain? Zer egin dezakegu etorkizunean errepika ez dadin?", aktoreek gatazkan dagoen gizarte baten berezko eguneroko hainbat bizipen antzestu zituzten.

Bi aktoreak hainbat pape-retan sartu ziren. Auzokideen artean gertatutako egoera

deserosoak, umeen arteko solasaldiak, gurasoei, bata alde batekoa eta bestea beste-koa, gustatzen ez zaien laguntasunena, haur txikien artean gertatzen diren hizketaldiak "zure aita hiltzaile bat da, amak esan dit hiltzaileen laguntzailea dela". "Ez nire aita zinegotzia da eta herritar-erentzat lan egiten du" bezalakoak.

Autobusaren zain, bizilagunekin topatu eta auzoko preso baten askatzearen aurrean, protagonistak benetan pentsatzen duena esatera ez da ausartzen eta auzoko batekin edo bestearekin hitz egin, diskurtsoa aldatu edota eguraldiaz mintzatzen hasten denekoa, gaia ekidin aldera.

Edota guraso eta seme-alaben artean gaiaren inguruan naturaltasunez ez hitz egitea, familiak norberaren pentsaeran izan dezakeen eragina, lagunena...



Antzerki honetan parte hartzeko aurrez izena eman behar izan zen solasaldirako talde txikia bermatu aldera.

Gogoetarako parada

Ikusleek istorio ezberdin hauen bitartez kanpotik, eza-gunak egiten diren egoera horiek ikusi eta antzerki zuzendari modura, amaiera aldatzeko aukera izan zuten, modu positiboagoan bukaera emateko.

Gogoetarako hainbat pista eman eta horrelakoak gaitzeko eman beharreko pausotan pentsatzeko abagunea bihurtu zen Udal Euskaltegiko aretoa.



Aktoreek sei istorio edo egoera ezberdin antzestu zituzten herritarren aurrean.

Lanbide eskolan jardunaldi teknikoak

Usurbilgo Lanbide Eskolako ikasleek jardunaldi berezia izan zuten asteazkenean Hexagon Metrology enpresaren ordezkariak gidatutako tailerrarekin.

Lanbide eskolako zuzendaria den Patxi Vaquerizok jardunaldien irekieran esan bezala "eskolak etengabeko harremana izan nahi du esparruko enpresekin eta hauek garatzen dituzten sistema eta teknologiek".

Hau dela eta Hexagon enpresako ordezkariak gonbidatu zituzten eskolara asteazkenean eurek garatutako teknologian oinarritutako neurketa tresnak aurkeztu eta erabilera azaltzeko. Jardunaldi honetan eskualdeko enpresetako ordezkariak ere parte hartu zuten entzule moduan.

Gasteizen egoitza duen enpresaren lana hobeto ezagutzeko aurkezpen laburra egin zuten ordezkariak izan ere, honen lana metrologia industrilerako aparailuen diseinua eta garapena da eta hauek erabiltzen dira besteak



Jardunaldiari hasiera eman zion zuzendariak.

beste, industria aerospazialean, energia berriztagarrietan edota medikuntzan. Aurkezpenen ostean, ikasle eta irakasleekin batera hamaiketako egin eta jarraian ekin zioten saio teknikoari.

Bertaratutakoek aukera izan zuten makinekin proba desberdinak egin eta euren erabilera ikusteko. Neurketa sistema eramangarriak izan

ziren saioan erabilgarri. Neurketak azkar egiteko aukeraz gain, neurketa oso zehatzak eskaintzen dituzte sistema hauek, erabilgarriak batez ere pieza handiekin eta fabrikazio prozesuan bertan erabili daitezkeenak.

Goiz osoko saio teknikoak ikasleen formazioaren baitan txertatzen du Usurbilgo Lanbide Eskolak.

Erdi Aroko arte moldaviarra ikusgai



Pablo Barrio alkateak erakusketa bisitatu zuen Decebal elkarteko kideekin batera.

Astelehenean, Manuel Lekuona kultur etxean erakusketa bereziak ireki zituen ateak, Goi Erdi Aroko arte moldaviarreko eredu erakusketa.

Decebal, Errumania-Euskadi elkarteak Kultura sailaren laguntzaz antolatu du eta besteak beste, Pablo Barrio alkatea izan zen irekiera ekitaldian.

Elkarteko kideen eskutik XV. eta XVI. mendeetako moldaviar artearen aberastasuna ezagutzeko aukera izan zuen alkateak.

Elkarteko kideek azaldu zuten, bereziki aipatzekoa da freskoetan azken urteetan egin diren zaharberitze lanak eta hauei esker erakusgarri dira arte honetako harribitxiak.

Erakusketa hau gure herrian dagoen aniztasunaren erakusgarri dugu. Izan ere, Decebal, Errumania-Euskadi elkarteko hainbat kide herrian bizi dira.

Lanak apirilaren 24ra arte izango dira ikusgai kultur etxean erakusketa aretoaren ohiko ordutegian 18:00etatik 21:00era. Sarrera doan da.

Literatur lehiaketa martxan

Maiatzaren 22a izango da lanak aurkezteko azken eguna

Udalak, kultura batzordearen bitartez, Lasarte-Oriako 29. Literatur lehiaketa eta Gazte eta Haurren 28. literatura lehiaketa martxan jarri du. Euskaraz zein gazteleraz aurkeztu ahal izango dira poesia, mikrokontakizunak eta Lasarte-Oria saria banatuko da aurreko urteetan egin bezala. Gazte eta haurrenean berriz, adinaren arabera hiru talde egingo dira eta ipuinak zein poesiak aurkeztu ahal izango dira.

TXINTXARRI

Azken da Lasarte-Oriako literatura lehiaketa heldu zein haur eta gazte-txoentzat. Helduen mailan, poesia eta mikrokontakizunak aurkeztu ahal izango dira eta gazteen lehiaketan berriz ipuinak eta poesiak. Lanak aurkeztu beharko dira maiatzaren 22a baino lehen eta sari banaketa azaroaren 21ean egingo da.

Oinarriei dagokionez, helduen lehiaketan parte hartzeko 1999. urtean eta aurrekoetan jaiotako euskarazko zein gaztelerazko idazleak aurkeztu ahal izango dira. Herrian errol-datuta daudenek halaber izango dute espezialitate bakoitzeko "Lasarte-Oria" sariak eskuratzeko aukera.

Idazlanak argitaratu gabeak eta jatorrizkoak izan beharko dira.

Poesiako idazlanak hiru kopian aurkeztu beharko

dira, tarte bikoitzarekin eta alde bakarretik mekanografiatutako orrietan. Idazlanek izenburua soilik eduki beharko dute, eta ez dute, beraz, egilea identifika dezakeen xehetasunik izango. Jatorrizkoarekin batera, eta gutun-azal itxian, egilearen datuak sartuko dira baita NANaren edo pasaportearen fotokopia ere. Gutun-azalaren kanpoaldean, idazlanaren izenburua eta ohar hau: POESIA, euskaraz edo gaztelaniaz. Baldin eta, horrez gain, "Lasarte-Oria" sarietan parte hartzea hautatzen bada, "Lasarte-Oria saria" adieraziko da.

Mikrokontakizunen lanak formatu digitalean bakarrik aurkeztuko dira (.RTF formatuan), posta elektronikoz. Postaren [Gaia] atalean, testuaren izenburua, kategoria eta hizkuntza jarriko dira, eta bi artxibo erantsiko zaizkio, bata lehiaketarako testua daukana, eta bestea datuak daukana,



Diploma eta sari banaketa ekitaldia azaroaren 21ean egingo da Manuel Lekuonan.

bigarren horretan adieraziko dira egilearen datuak. Kasu honetan ere, "Lasarte-Oria" sarietan parte hartzea hautatzen bada, adierazi beharko da.

Poesiako jatorrizkoak kultur etxeko bulegoetan entregatuko dira. Posta zertifikatuak ere onartuko dira, ezarritako epearen barruan bidali badira. Euskarazko mikrokontakizunen lanak mikrokontakizunak@lasarteoriasarean.eu helbidera bidaliko dira, Gaztelaniazko mikrokontakizunen lanak microrrelatos@lasarteoriasarean.eu-ra ezarritako epearen barruan. Epaimahaia Kultura Batzordeak izendatuko du, eta hauen erabakia www.lasarteoriasarean.eu plazara-tuko da.

Sariei dagokionez, euskarazko eta gaztelerazko poesia ataletan 1.000 eurokoa izango da, "Lasarte-Oria" saria euskaraz eta gazteleraz 300 eurokoa. Mikrokontakizuna 1985 eta 1999 bitartean jaiotakoentzat euskaraz eta eta gazteleraz 500 euro eta Lasarte-Oria saria 150 eurokoa izango da.

1985 urtea baino lehen jaiotakoentzat 500 euroko saria euskaraz eta gazteleraz eta "Lasarte-Oria" saria 150 euro.

Haur eta gazteak
Lehiaketan, herriko haur eta gazteek parte hartu ahal izan-

go dute. Idazlanak hirukoiztuta aurkeztu beharko dira, tarte bikoitzez eta alde bakarrez mekanografiatutako folioetan. Idazlanek izenburua soilik eduki beharko dute. Jatorrizkoarekin batera eta gutun-azal itxian, egilearen datuak jarriko dira. Gutun-azalaren kanpoaldean idazlanaren izenburua eta zein kategoria eta espezialitate aurkezten den. Jatorrizkoak kultur etxeko bulegoan entregatuko dira.

Adinaren arabera hiru talde egingo dira horrela, A kategoria 2006 urtean eta gerostik jaiotakoek osatuko dute, B kategoria 2003, 2004 eta 2005. urteetan jaiotakoak eta azkenik C kategoria 2000, 2001 eta 2002. urteetakoek. Espezialitate eta kategoria bakoitzean 1. saria 150 euro (75 euro eskudirutan + liburutan 75 euroko balioa duen txartela); 2. saria 112 euro (56 euro eskudirutan + liburutan 56 euroko balioa duen txartela) eta 3. saria 76 euro (38 euro eskudirutan + liburutan 38 euroko balioa duen txartela).

Poesian berriz, bai euskaraz bai erdaraz, C kategorian 1. sari bakarra emango da.

Oinarri guztiak www.lasarteoriasarean.eu webgunean daude dagoeneko ikusgai.

Musikazaleen hitzordua

Musika Astearren 3. edizioari hasiera eman zitzaion atzo arratsaldean. Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan Hirubi Boskotearen kontzertuaz gozatu ahal izan zen.

Musikenen, Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia, 2013an sortutako taldeak emanaldi polita eskaini zuen bart.

Lau pieza jo zituzten bi zatitan banatuta, errepertorio klasikoan kokatu zuten euren emanaldiaren doinuak nahiz eta bigarren zatian bestelako kutsua eman nahi izan zioten kontzertuari. Horrela, udako amodio istorio bat gogora ekartzen zuen doinu alaia esakaini zuten eta amaitzeko, tangoa eta balsa uztartzen dituen Julio Medagliaren pieza.

Mikel Urdangarin

Gaur berriz, Mikel Urdangarinen kontzertuaz gozatu ahal izango da Manuel Lekuonan 20:00etatik aurrera.

"Mikel Urdangarin 2015"

biran abeslari bizkaitarra bakarrik abiatzen da bidaiatzearen arriskuak sortzen duen zirrarekin.

Gitarraren laguntzaz proiektu berri honetako sortu dituen hainbat kantu aurkeztuko ditu zaharrekin uztartuta.

Emanaldi honetarako sarrerak 5,50 euro balio ditu.

Erdi Aroko musika

Bihar berriz, kontzertu berezia izango da San Pedro elizan.

Danok Kide elkatearen laguntzaz, Ars Combinatoria taldearen "Paris-Santiago. Erdi Aroko polifoniaren bidea" emanaldia izango da San Pedro elizan.

Taldeak Erdi Aroan murgilduko ditu entzuleak, bai musika baita haien jantziengatik ere.

XI., XII. eta XIV. mendetan Konpostelako Done Jakue Katedralean, zein Parisko Notre Dame katedralean edo Montpellierreko katedralean ohikoak ziren motete, con-

ductus edo organum doinuak eskainiko ditu gizonen abesbatzak.

Ahots zurietako abesbatzak berriz, Burgoseko Santa Maria deLa Real Monastegiko Las Huelgaseko kodexeko doinuak eskainiko ditu uztai-biolak lagunduta.

Emanaldia 20:00etan izango da eta sarrera doakoa da.

SuBerri akordeoi orkestra

Eta asteburu musikala honi amaiera ematen herriko talde bat izango dugu Manuel Lekuonan, SuBerri Akordeoi Orkestra.

Igandean, 12:00etan hasita, Elias Goikouriak zuzentzen duen taldeak musika klasikoa, tangoa, jazz edo bossa nova nahasten dituen egitaraua aurkeztuko du. Era honetara, aretoa hurbiltzen diren herritarrek hala nola, La chica de Ipanema, Astor Piazzolaren Oblivion edo Duke Ellingtonen doinuak entzun ahalko dituzte. Sarrera irekia izango da.



Hirubi boskotearen doinuekin eman zitzaion bart hasiera musika egitarau bereziari.

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra

Basurde burua

Baserri pateia

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

LABURRAK.-

LOKEko gimnastek laugarren eta hirugarren postuak lortu dituzte Donostia Torneoan

Altzako kiroldegian lehiatu zuten LOKEko gimnastek, emaitza onak eskuratuz gainera. Seniorren A taldea laugarren izan zen uztailen egindako proban. Aizpea Arroyo, Ane Loiarde, Maria Millan, Ane Ayestaran, Ainara Apeztegia eta Aizpea Arroyok osatzen dute talde hau eta fin aritu ziren etxetik gertu.

Jubenil mailan, mazekin, hirugarren izan ziren LOKEko neskek podiumeko hirugarren koskara igotzeko. Talde honetako kideak Alazne Gonzalez, Nora Fabian, Gabi Parga eta Haizea Gomez dira. Maite Rueda entrenatzailea gustura zen bere neskek burututako lanarekin eta orain apirilaren amaieran eta maiatza hasieran jokatu diren gimnasia erritmikoko txapelketak prestatu dituzte buru-belarri.



V. Lasarte-Oriako BTT proba igandean Andatzen barrena, ibilbide moldatuarekin

Buruhauste dezente izan dituzte MKL denda eta Saiatuzeko kideak aurtengo ibilbidea finkatzeko. Andatza goikaldean zuhaitzak mozten ari dira eta pistak egoera txarrean eta lan-makinaz beterik daude. Dena den, azkenean lotu dituzte aurtengo edizio azken xehetasunak. Bi ibilbide izango dira aukeran. Luzeak 35 kilometroko luzera izango du eta 1.100 metroko desnibel positibo metatua (3:30h). Laburrak berriz 29 kilometro izango ditu eta 1.000 metroko desnibel positibo metatua (2:30h).

Azken izen-emateak egiteko aukera dago egunean bertan, proba hasi aurretik, 8:30etik 9:15era bitartean. 15 eta 17 euroko prezioa izango du azken orduko izen-emateak.



Goizeko 9:30ean ekingo dio lokatzezipiriztindu aurreko tropel koloretsuak 2015eko edizioari. Antolakuntzak jakinarazi du anoa postuetan elikagai solido eta likidoak izango

dituztela txirrindulariek ibilbidean zehar: pastelak, fruta, esnekiak eta edari isotonikoak izango dituzte aukeran parte-hartzaileek. Iazko arrakasta ikusita, aurten helmugan hamaiketako bikaina egiteko aukera ere izango dute ziklistek: txistorra pinxoak, salda, haragi egosia, albondigak... Eta nola ez, garagardo freskoa txirrindularien gorputzak hidratatzeko. Sari banaketa trabaesia amaitzean egingo da.

ESKU-PILOTA.-

San Pedroetako txapelketako izen-ematea irekita dago

Benjamin, alebin eta infantil mailetan jokatu dute Intza KEk antolatzen duen herriko XXIII. txapelketa

San Pedro jaiak eta pilota estu loturik egon izan dira betidanik. Intza KEk antolatutako gazteen XXIII. txapelketaz gain, II. emakumezkoen pala txapelketa eta V. beteranoen txapelketa ere jokatu dira aurtengo Loidi-Barrengo pilotalekuan. Izen-ematea zabalik dago.

TXINTXARRI

San Pedro Jaietako Intza KEk antolatzen duen txapelketa herriko neska-mutilentzat da. Hiru maila izango dira, 2005-06an jaiotako benjaminak, 2003-04ean jaiotako alebinak eta 2001-02ko infantilak. Partiduak larunbat eta igande goizetan jokatu dira Loidi-Barrengo frontoian.

Antolatzaileek jakinarazi dute nahitaezkoa dela kirola egiteko arropa egokiarekin jokatzea. "Finalerdia eta finala arropa zuriarekin jokatuko dira, horixe baita eskupilotaren ezaugarri nabarmenetakoa bat", adierazi dute. Benjaminak eta alebinek pilota goxuarrekin jokatuko dute eta infantilek tokerako pilota mistoarekin.

Ohi bezala, pilotari gazte txoen artean lehiak gain kiroltasuna ere sustatu nahi dute.



Beteranoen txapelketa eta Emakumezkoen pala txapelketa ere prestatu dituzte, iaz bezala.

V. beteranoen txapelketa

Beteranoen txapelketa ere Lasarte-Oriako pilotarientzat izango da. Parte-hartzeko baldintza 1979. urtea baino lehenago jaiotakoa izatea (36 urtetik gorakoak), hortik aurrera, ez dago adin-mugarik. Maila honetan pilotak goxuarrekin izango dira eta sarea hirutik hirura izango da. Partiduak berriz, 18 tantora jokatu dira.

II. emakumezkoen pala txapelketa

Pilota oro har gizonetzkoekin lotzen bada ere, geroz eta emakume gehiagok egiten du kirol hau. Lasarte-Oriako ere bada afizioa eta hori ikusita, San Pedro jaietako II. emakumezkoen pala txapelketa herriko neskentzat bakarrik izango da bigarren urtez jarraian.

Kasu honetan, 1999. urtea baino lehenago jaiotako pilo-

tarientzat prestatu dute (16 urtetik gorakoak), adin-mugarik gabe. Pala txapelketa tenis-pilotekin jokatu da, sarea hirutik hirura izango da eta partiduak 18 tantora jokatu dituzte. Antolatzaileek bereziki animatzen dituzte neskek izena-ematera.

Izen-ematea irekita

Hiru kategoria hauetako edozeinetan izena eman nahi duten lasarteoriarrek astearte eta ostegunetan dute aukera 18:00etatik 20:00era Michelingo frontoira hurbilduta, edota e-mailez solanof@hotmail.com helbidera mezua idatzita. Izen-ematea egiteko azken eguna maiatzaren 5a izango da.

Materiala (pilotak) Intzak jarriko du eta antolatzaileak ez dira txapelketako partiduetan gerta litezkeen lesioen edota istripuen arduradun egiten.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 18
Matigoxotegi, Donostia, 13:45ean
Kostkas B - Ostadar SKT
Kadeteak I. maila, Kopa
12. jardunaldia.

Michelin, 14:00etan
Ostadar SKT - Mariño
Infantilen Ohorezko Kopa
10. jardunaldia.

Plazeta, Lezo, 15:30ean
Allerru - Ostadar SKT
Emakumezkoen Lurralde maila
12. jardunaldia.

Argixao, Zumarraga, 15:30ean
Urola - Texas Lasartearra
I. Erregionala, Kopa
12. jardunaldia.

Zaldupe, Ondarroa, 17:00etan
Aurrera Ondarroa - Ostadar SKT
Ohorezko Erregional maila
29. jardunaldia.

Michelin, 17:15ean
Ostadar SKT - Hondarribia
Jubenilen Ohorezko maila
26. jardunaldia.

Harane, Usurbil, 18:00etan
Usurbil - Texas Lasartearra
Jubenilen I. maila, Kopa
13. jardunaldia.

Igandea 19
Unbe, Eibar, 15:30ean
Eibar SD - Ostadar SKT
Kadeteen Euskal Liga
29. jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 17
Herriko areto-futbol txapelketa,
23. jardunaldia
Michelingo kirol-gunea, 19:45ean
Ilargi - Urdaneta HK
Michelingo kirol-gunea, 20:45ean
Bar El Punto - Reformas Lagunak

Larunbata 18
Michelingo kirol-gunea, 9:15ean
Indaux - Txoko Taberna
Michelingo kirol-gunea, 10:15ean
Viña del Mar - Bar Buenetxea
Michelingo kirol-gunea, 11:15ean
Izkiña Taberna - Insausti
Michelingo kirol-gunea, 12:15ean
Trumoi - Txindoki

ERRUGBIA

Igandea 19
Asti, Zarautz, 12:00etan
Zarautz Beltzak - Alcobendas
Ohorezko B mailako igoera-fasea.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 18
Zumaia, 10:45etan
Bazpiko kadeteek Zumaia Saria -
Torneo Gaztetxoak proban parte-
hartuko dute, 57,5 kilometroko
ibilbidearekin.

Igandea 19
Urretxu, 16:00etan
Bazpiko jubentilek Urretxuko Sarian
parte-hartuko dute. 83,8
kilometroko ibilbidea.

SASKIBALOA

Ostirala 17
Kiroldedia, 20:30ean
Ostadar SKT A - Arri BKL
Jubenil neskek, errendimendua

Larunbata 18
Kiroldedia, 16:00etan
Ostadar SKT A - Añorga A
Kadete neskek, errendimendua
Partidu erabakigarria datorren astean
jokatu den Final Fourrera sailkatzeko.

Igandea 19
Kiroldedia, 11:00etan
Ostadar SKT - Allerru SBT
Senior gizonetzkoak, 3. maila

Paco Yoldi, Donostia, 12:00etan
Bera Bera - Ostadar SKT B
Kadete neskek, parte-hartzea

— Agenda —

Ostirala, gaur, 20:00etan, Manuel Lekuona kultur etxea



Mikel Urdangarinen kontzertua

Mikel Urdangarinen emanaldiaz gozatu ahal izango da gaur. 3. Musika Astearen baitako kontzertua da eta kasu honetan, bakarrik dator Urdangarinen Manuel Lekuonara. Musikan dagoeneko 17 urte daramatza eta musikariak bere bira honetan. Etxeko sukaldeko bakardadean kantatzen eta sortzen duen Mikel hori erakutsi nahi du lehenengoz, kantu zahar eta berriak lagun. Sarrera 5,50 eurokoa izango da.

Tailerra

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata, 11:00etan

Hurrei zuzendutako Pazko-arrautzak apaintzeko tailerra egingo da.

Literatura

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astearte 21, 18:30ean

Annie Ernaux-en 'Pasio hutsa' nobela izango dute hizpide Irakurle txokoa. Ohi bezala gidari izango dute Uxue Alberdi idazle eta bertsolaria. Parte hartzea irekia da.

Urnieta

Jaialdia

KIROLDEGIA

Igandea, 9:30ean

Pausoka elkarteak elkartasun Zumba Festa antolatu du kiroldegian. Honetan saio ezberdinak izango dira. 9:30ean hasi eta 11:00k arte egingo da lehenengo zumba saioa. Honetan parte hartzeko 10 euro ordaindu beharko dira. 11:15-11:45 tartean umeentzako saioa izango da doan. Jarraian, 12:00etatik 13:30era egingo da helduentzako beste saio bat. Honetarako sarrerak ere 10 euroko kostua izango du. Hauek gidatzeaz arduratuko dira Virginia Franco eta Oliber Nestar. Dirua Pausokak garatzen dituen egitasmoak laguntzeko izango da. Pausoka elkarte behar bereziak dituzten gurasoek sortu zuten eta fisioterapia, logopedia eta bestelako terapiak lantzen dituzte.

Lasarte-Oria

Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 17:00etan

"Annie" filma haurrentzako zinema atalean. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 19:30ean

"Fuerza Mayor (Turist)" filma helduentzako zinema atalean. Urrezko Globoetan izendapena eskuratu zuen film suediarrek ingelesa ez den hizkuntza batean egindako film onena atalean. Sarrera 5,50 euro.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Apirilean zehar

Haur eta gaztetxoek 2014 urteko Udako Txoko eta Kanpaldiak gogora ekartzeko argazki erakusketa antolatu da.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astelehena 13-Ostirala 24, 18:00etatik 21:00era

XV. eta XVI. mendeetako Moldaviako artearen hainbat adibide ikusgai izango dira. Decebal, Errumania-Euskadi elkarteak antolatua Kultura sailaren laguntzaz. Doan.

III. Musika Astea

SAN PEDRO ELIZAN

Larunbata, 20:00etan

Ars Combinatoria ahots talderen emanaldia izango da. Emakume, zein gizonen ahotsetan Erdi Aroan Paris, Santiago eta Burgoseko katedraletan abesten zen doinuetaz gozatzeko aukera izango da. Doan.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 12:00etan

Lasarte-Oriako SuBerri akordeoi orkestraren kontzertua. Jazz, bossa-nova, musika klasikoa eskainiko dute emanaldian. Doan.

— Herritarren txokoa —

Udako Txoko eta Kanpaldietan begiraleak behar dira

Uztaila edo abuztuan zehar Udako Txokoetan herriko gaztetxoekin primeran pasa edo Mendigorria eta Donemiliagan udaleku itxietan ibilaldiak egin eta milaka abentura bizitzeko prest dauden gazteek izena emateko aukera dute dagoeneko.

Begirale ugari behar dira batez ere Udako Txokoetarako. Aisia saileko arduradunek azpimarratu dutenez, bi baldintza daude 18 urte baino gehiago izatea eta euskara maila txukuna izatea.

Informazio gehiago eskuratu nahi duenak Ttakun Kultur elkartera hurbildu edo aisia@ttakun.com helbidera mezu bat bidali besterik ez du. Begirale poltsan izena emateko azken eguna gaur, apirilaren 17a izango da.

Erakusketak jartzeko espazioa

Jalgi Kafe Antzokian erakusketa jartzeko interesa izan dezakeen edozeinek kultura@ttakun.com edo 943 37 14 48 telefonora dei dezake espazioa eskatu, edozein zalantza edo informazio gehiagorako. Normalean hila-beteko iraupena duten erakusketak

izantzen dira Jalgin jartzen direnak. Margoak, argazkiak, ilustrazioak... jarri daitezke. Ez da zertan Lasarte-Oriakoa izan behar espazio hau erabiltzeko.

Lasarte-Usurbil institutoko zozketa

Martin Berasategi jatetxean bazkaria irabazi duen zenbaki sariduna 1949 da. Hau daukanak Institutotik pasa behar duela jakitera eman du zentroak.

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza izango da Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan hilabetero bezala. Apirilaren 24an, ostirala, arratsaldeko 17:00etan.

Eskutitza

Maratoi bat bilakatu da egindako eskaera

Espetxeko bizitza ez da erraza. Jakina. Are gehiago gaixotasun sendaezin bat agertzen bada. Diagnostikoa lortu arteko bidea oztopoz betea, gogorra izan da. Behin diagnostikoa eskuartean, ezta samurragoa izan ordea. Etengabe higitzen ari den soka gainean oreka mantentzen saiatzearen parekoa. Gaixotasuna tratatu ahal izateko zigorra etetea eskatu zuenetik hona, luze jo du bi urtetik gorako denbora honek Ibonen osasunean.

"Esklerosi anizkoitza" gaixotasuna diagnostikatu ziotenetik joan dira bi urte luze horiek. Tarte horretan, bi mediku txosten egin dizkiote epaitegiek bidalitako mediku espezializatuek. "Gaixotasuna espetxearekin bateragarria ez dela" ondorioztatu dute bietan. Ekaineko erabakia kondena etetearen aldekoa izan zen, eritasunak Ibon libratzea ekarri behar zuela onartu zuen. Hori nahikoa ez eta hirugarren mediku-txostena behar zuela erabaki zuen epaileak, prozesua luzatuz. Azken txosten honek gaixotasuna eta kartzelako bizitza bateragarriak direla dio, nahiz eta gaixotasunaren garapenak berarekin motrizitate galera dakarrela onartzen duen. Nola ulertu hau? Zergatik jarri

zalantzan epaileak izendaturiko aurreko bi medikuen txostena? Zergatik gehiago luzatu?

"Maratoi bat bilakatu da egindako eskaera. Helmuga ordea, nolakoa den ezin jakin" idatzi zigun Ibonek joan den abenduan. Bai lehen, bai orain, zigorraren suspentsioa onartzeko badela nahiko arrazoi uste dugu. Are gehiago, osasuna -besteak beste- oinarritzko giza eskubidea dugu. Behar duen tratamendua jasotzea ahalbideratuko dion erabakiak behar du maratoiaren helmuga izan. Ez ditugu onartzen giza eskubideen urraketak. Ez ditugu onartzen gaixotasun larriak dituzten presoek eskubideen urraketak.

"Behin helmugara iristear, nire bizitza -eta neurri handi batean nire hurbilekoen bizitza- erabakiko dutenak maratoiari kilometro gehiago eta gehiago gehitzen ari dira." (Ibon 2014-XII; Harresi Guztien Gainetik errezitalditik jasoa) Aste gutxi barru jakingo dugu maratoiaren amaieran Giza Eskubideak presente izango diren ala ez: maiatzaren 7an.

Adi herrian gai honekin egingo diren ekimenetara.

Ibonen lagunak

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi
edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info

%20 baietz Buruntzaldean

Errenta aitortpena euskaraz egitera animatu nahi dituzte herritarrak eskualdeko euskara batzordeek

Diru kontuak gaztelaniaz egin ohi dira, ohitura falta, hitz teknikoak, segurtasun falta... baina euskaraz egiteko aukera dago modalitate guztietan. Buruntzaldeko euskara batzordeek aurtengoan erronka jarri eta eskualdean egiten diren errenta aitortpenen %20 euskaraz izatea da helburua. Herritarrak animatzeko Buruntzaldea Euskaraz Facebook orrian lehiaketa jarri dute martxan.

Errenta aitortpena egiteak etekina ekartzen dio gure gizarteari, diru horrekin hainbat zerbitzu bermatzen ditugulako, baina, gainera euskaraz egiten badugu, beste etekin bat ere gehitzen diogu: gure hizkuntza eta hizkuntza hori erabiltzen dutenak indartzen ditugu”.

Hori da Buruntzaldeko udaletako Euskara Batzordeek garai honetan azpimarratu nahi dutena.

Izan ere, Buruntzaldeko udaletako Euskara Zerbitzuek urteak daramatzate data hauen inguruan herritarrak animatzen errenta aitortpena euskaraz egin dezaten, baina aurten gonbiteari erronka gehitu diotela azaldu dute, “baietz eskualdean aurten egingo diren errenta aitortpenen %20 euskaraz izan!”.

Urtetik urtera gehiago dira errenta aitortpena euskaraz egiten dutenak, iazko kanpainen, adibidez, %13,6 izan ziren, eta aurten langa hori gorago jarri nahi izan dute.

Izan ere, diru kontuak gaztelaraz egiteko ohitura dute euskaldun askok, ohituraz, hiztegiaren zailtasunak edo segurtasun faltak bultzatuta.

Joera hau aldatzea da eskualdeko euskara zerbitzuen nahia, euskaldunek pixkanaka erakundeekin egin behar dituzten tramiak ere euskaraz egiteko.

Jendea animatzeko Buruntzaldeko euskara zerbitzuen Facebook orrian ere lehiaketa bat jarri dute abian, eta parte hartzen dutenen artean bi lagunentzako sagardotegi menua zozketatuko dute maiatzaren 15ean.

Lehiaketa Facebooken

Apirilaren 8tik maiatzaren 14ra bitartean martxan egongo da lehiaketa berezi hau.

Ondoren, irabazlearen izena maiatzaren 15ean emango da jakitera. Esan bezala, asmatzaileak sagardotegian bi lagunentzako otordua irabaziko duela azpimarratu dute sustatzaileek.

Ez da lehenengo aldia halako egitasmoarekin herritarrak euskararen aldeko hautua egitera animatu nahi dituztela eta aurreko urteetan ere lehiaketa burutu da, nolabait hizkuntza aukeraketa hori saritzeko asmoz.

Iazkoan bezala, aurtengo lehiaketan parte hartzea erraza izango da.

Buruntzaldea Euskaraz orrialdean atsegin dut sakatu behar da lehenengo.

Horren ostean, bertan azaltzen diren siglak, euren esanahiekin lotu beharko dira, siglak eta esanahiak nahastuta agertzen dira.

Errenta Aitortpenarekin lotutako hainbat hitzen esanahia asmatu beharko da



Ogasunak Hernanin duen bulegoan errenta aitortpena egin dezakete herritarrek.

URUMEAKO KRONIKA

horrela, ohikoenak direla ere aipatu dute.

“Gainera aurten errazagoa izango da, hitz hauen esanahia non topa daitekeen ere esango baitugu”, adierazi dute euskara batzordeak.

Erantzunak Facebook-eko iruzkinetan bertan idatzi beharko dituzte herritarrek. Epean egiten diren erantzun zuzen horien artean banatuko da saria.

Errenta aitortpena euskaraz

Errenta aitortpena egiteko hiru modu desberdin daude eta guztietan erabil daiteke euskara.

Errenta aitortpen mekanizatua egitea hautatzen duten herritarrek, gaurtik ekainaren 5era har dezakete hitzordua.

Hau zehazteko garaian adierazi beharko da Ogasunarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzula.

Ogasunarekin aurrez aurreko harremanak, nahiz eta telefono edo Internet bidezkoak euskaraz izan daitezke, horrela eskatzen bada.

Ogasunak sinatzeko ematen duen orria ere euskaraz jaso daitekeela jakin behar dute herritarrek.

Autolikidazio proposamena etxean jasotzen duten herritarren kasuan, apirilaren 13tik ekainaren 25era luzatzen da onarpena emateko epea.

Jasotako proposamena onartzerakoan, euskaraz egin nahi dela adierazi dezake herritarrak eta aurretiaz Ogasunak agiriak euskaraz bidaliko dizkio.

Azkenik, Internet bidez egiten bada aitortpena, hauek aurkezteko epea apirilaren 17tik ekainaren 25era izango da.

Errenta aitortpena egiteko programaren euskarazko

bertsioa jaitsi daiteke eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara aukeratu.

Azkeneko aukera da errenta aitortpena aholkularitza enpresa baten bidez egiten duten herritarrena. Kasu horretan “propio adierazi beharko da aitortpena euskaraz egin nahi dela” azaldu dute Euskara batzordeak.

Informazioa

Informazio gehiago behar izatekotan, herritarrek buruntzaldea.eus webgunean kontsultatu dezakete. Eskualdeko Euskara Zerbitzuetan eskuragarri dagoela ere jakitera eman dute.

Horrekin batera, euskararen aldeko apustua egitera animatu nahi dituzte herritarrak eta bide batez, Facebookeko lehiaketan parte hartuz saria ere eskuratzeko aukera dagoela gogoratu nahi izan dute.



ERRENTA AUTOLIKIDAZIOA EUSKARAZ

BATU ETA GEHITU ETEKINA

%20 BAIETZ BURUNTZALDEAN!



Buruntzaldea

Informazio gehiago: <http://euskara.buruntzaldea.org>
Sartu Buruntzaldeko Facebook-en eta parte hartu gure lehiaketan!

Andoain / Astigarraga / Hernani / Lasarte-Oria / Urnieta / Usurbil
Udal Euskara Batzordeak



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO